

# ESPAZIOAK ANITZ BERRI

A. Oilarra


Espazioaren konkista edo esplorazioari buruz berri asko izan ditugu azken hilabeteotan: onak batzuk eta ez horren onak besteak.

Berri onak aipatuz hasiko gara. Iparramerikarrek joan den irailaren batean *Discovery* transbordadorea orbitan jarri zuten. Hau *Challengeren* istripuaren ondoren lehen transbordadore-jaurtiketa izan da. Bi urte t'erdi behar izan dira transbordadorearen diseinua berraztertzeko eta beharrezko segurtasun-neurriak garatzeko. Berrikuntzen artean nabariena zera da: jaurtiketan zehar istripurik gertatuz gero astronautak salbatuko dituen sistema. *Challengeren* kasua berriro gertatuko balitz, sistema berriari esker ez litzaieke tripulariei ezer gertatuko. Jaurtiketa eta ondorengo orbita-saioak arrakastatsuak izan ziren. Horri esker iparramerikarren espazio-programak bulkada berri eta indartsua hartuko duela uste da.

Sobietarrak ere beren transbordadore-programa martxan jartzeaz daude. Informazio hau idatzi denean ez dute oraindik *Buran* izeneko transbordadore espazioratu. Lehenengo saioa bertan behera utzi behar izan zuten sobietarrek atzerako kontaktaren azken segundotan zeudelarik. *Buran* transbordadore eta *Energia* jaurtigaliua zutik mantentzeko erabiltzen diren dorreetako bat ez zen oso-osorik baztertu eta jaurtiketa arriskutan jartzen zuen. Sobietarrek jaurtiketa geldi eraztea erabaki zuten, nahiz eta arriskua oso txikia izan. Hurrengo saioa atzeratu egin behar izan da; sistemak konprobatzeko erregaiandelak hustu egin

behar izan bait dituzte. *Buranek* bere lehenengo hegaldian, ez zuen tripularirik eraman behar eta untzia ren maniobragarritasuna probatu nahi zen. Hurrengo saioa azaroaren erdialdean izango denez gero, *Elhuyar. Zientzia eta Teknikaren* ale hau kale-ratzerako sobietarren untzia espazioko bira jadanik egina izatea posible da.

Bestalde, azaroaren erdialdean Vladimir Titov eta Musa Maranov kosmonautek iaz Juri Romanenkok jarritako marka hautsi dute. Romanenkok 325 egun egin zituen *Mir* estazio espazialean eta Titov eta Maranov-ek marka horri beste 40 egun erantsi nahi dizkiote. Beren itzulera datorren Santo Tomas egunean izango dela espero da. Bitartean, Jean-Loup Chretien kosmonauta frantsesaren bisita izango dute. Hau, kosmonauta frantsesa espaziora doan bigarren aldia izango da. *Mir* estazioaren hirugarren tripularia, Valeri Poliakov medikua, apirila arte egongo da bertan.



Sobietarren transbordadore espaziala Energia jaurtigailuari loturik

Espazioari buruzko al-biste labur hauei amaiera emateko berri txar bat aipatuko dugu. Aldizkari honetan luze mintzatu gara sobietarrek Martitzerantz bidalitako *Phobos* zunda automatikoez. Joan den irailean kontrolatzaile baten errakuntzaren ondorioz, sobietarrek *Phobos 1* zundarekin kontaktua galdu dute eta ez dirudi berrreskuratzea posible izango dutenik. Lurretik bidalitako seinaleak jasotzeko antenak itua galdu du eta ez dago Lurrerantz orientaturik. Beraz, zunda kontrolik gabe dabil une honetan. Zorionez, bigarren zunda arazorik gabe dabil bere bidean. 